

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

4620

AGINDUA, 2006ko ekainaren 14koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ikasle ezgaituen unibertsitate-garraioaren 2006-2007 ikasturterako gastuak ordaintzeko laguntzetarako dei egin eta laguntzok arautzen dituena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 3. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, 2002ko abenduaren 3ko Agindua eman zen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ikasle ezgaituen unibertsitate-garraioaren 2002-2003 ikasturterako gastuak ordaintzeko laguntzetarako dei egin eta laguntzok arautzen dituena.

Agindu hau behin baino gehiagotan aplikatzeak hobeak nabarmena ekarri dio ikasle ezgaituen egoerari, horri esker ez baitzaie kostu ekonomiko gehigarriak ezarriko beren joan-etorriari, mugikortasunean mugaturik ez dauden gainerako ikasleek halakorik ez dute jasan behar eta.

Halaber, laguntzaren zenbatekoa arautu beharra dago, eskuragarri diren baliabide ekonomikoek bermatu dezaten banaketa zuzen egingo dela, objetiboki zergatratamendu astunenekotzat jotzen diren egoerei lehenetsuna emanez.

Horregatik, eta Unibertsitatea Antolatzeko Legean eta Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritakoa bete nahirik (bietan ere aukera-berdintasuna, unibertsitate-ikasketak jasotzeko eskubidea, eta herritar guztien integrazioa eta normalizazioa defendatzen baitira), komeni da araua dauden beharrei egokitzea, arauak berdintasun eta unibertsalitate printzipioei benetan erantzun diezaien.

Araua erregulatu eta kudeatzeko, eta deialdia egiteko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batera jardungo dute, arauak bi sailen jarduera-eremuetan eragina duelako.

Araua prestatzeko orduan honako lege-xedapen hauek hartu dira kontuan: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan diru-laguntzei buruz jasota dagoen legeria, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkide-

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

4620

ORDEN de 14 de junio de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales y del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan y regulan las ayudas para sufragar gastos de transporte universitario para estudiantes con discapacidad, en el curso académico 2006-2007.

En consonancia con lo establecido en el artículo 3 de la Ley 5/1996 de 18 de octubre, de Servicios Sociales y en el artículo 3 de Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se dictó la Orden de 3 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales y de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan y regulan ayudas para sufragar gastos de transporte universitario para estudiantes con discapacidad durante el curso académico 2002-2003.

Las sucesivas aplicaciones de esta orden han supuesto una notable mejora de la situación del colectivo de estudiantes con discapacidad, al permitir que sus desplazamientos no se vean gravados con un coste económico añadido que, sin embargo, no tienen que soportar el resto de estudiantes que no padecen limitaciones de movilidad.

Asimismo, se hace preciso regular la dotación de la ayuda, de forma que con los recursos económicos disponibles se garantice una distribución equitativa, primando aquellas situaciones que objetivamente se consideren más gravosas.

Por ello y para dar cumplimiento a lo preceptuado tanto en la Ley de Ordenación Universitaria como en la Ley de Servicios Sociales ya citadas, en las que se aboga por la igualdad de oportunidades y el derecho a la enseñanza universitaria, la integración y la normalización de toda la ciudadanía, resulta conveniente adaptar la norma a las necesidades detectadas, de forma que responda realmente a los principios de igualdad y universalidad.

La regulación, convocatoria y gestión de la misma, procede efectuarla a través de la actuación conjunta del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, puesto que la misma afecta a áreas de actuación atribuidas a ambos departamentos.

En su realización se ha observado la legislación vigente en materia de subvenciones del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y las autorizaciones contenidas en la Ley 5/2005, de 29 de di-

goko 2006ko aurrekontu orokorrak onesten dituen abenduaren 29ko 5/2005 Legean jasotako baimenak.

Horren ondorioz,

XEDATU DUGU:

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honen helburua hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikastetxeetako ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikoak arautzea. Ikasle horiek balioezintasuna legez aitortuta eduki behar dute eta, beren urritasunen bat dela eta, garraio normalizatua ezin dute beren kabuz erabili.

2. artikulua.— Onuradunak.

2006-2007 ikasturtean lehenengo eta bigarren zikloko goi-mailako ikasketa ofizialak eta graduatu-ondoko ikastaroak egiten ari diren pertsonak jaso ahal izango dituzte laguntza horiek. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein unibertsitate-ikastetxetako ikasle izan behar dute, eta gainera, baldintza hauek bete behar dituzte:

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea.

2.— 2006-2007 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikastetxeren batean edo goi-mailako eskola teknikoren batean matrikulatuta egotea.

3.— Beren ohiko bizilekutik unibertsitate-ikastetxera edo goi-mailako eskola teknikora joan behar izatea.

4.— Dagokion Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitatean honako hauek aitortuta edukitzea:

a) % 33ko baliogabetasun-maila edo handiagoa.

b) Mugikortasun-arazoak izatea garraio kolektiboak erabiltzeko, hala jasota baitago minusbaliotasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 5. artikulua 4.b atalean.

c) Hala badagokio, beste pertsona baten laguntza behar izatea, hala jasota baitago minusbaliotasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 5. artikulua 4 atalean.

3. artikulua.— Diru-baliabideak.

Agindu honek jasotzen dituen laguntzetarako ehun mila euro (100.000) ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan propio ezarritako aurrekontu-izendapenaren kontura.

4. artikulua.— Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.— Erabilitako garraio-bidea norbere ibilgailua bada, laguntzaren zenbatekoa honela kalkulatu da: 0,24 euro bider egindako kilometro-kopurua.

ciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2006.

En su virtud

DISPONEMOS:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto de esta Orden la regulación de ayudas económicas para sufragar los gastos de transporte a las y los estudiantes de los centros universitarios del País Vasco que tengan la condición legal de minusvalía y que debido a su discapacidad se vean en la imposibilidad de utilizar de manera autónoma los medios normalizados de transporte.

Artículo 2.— Personas beneficiarias.

Podrán beneficiarse de estas ayudas aquellas personas que durante el curso 2006-2007, cursen estudios superiores oficiales de primero y segundo ciclo, así como postgrado, en cualquiera de los centros universitarios de la Comunidad Autónoma Vasca y que además reúnan los siguientes requisitos:

1.— Estar empadronada en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— Estar matriculada en alguno de los centros universitarios o escuelas técnicas superiores ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante el curso 2006-2007.

3.— Desplazarse al centro universitario o escuela técnica superior desde su domicilio habitual.

4.— Tener reconocido por la Unidad de Valoración y Orientación de la correspondiente Diputación Foral los siguientes extremos:

a) Un grado de minusvalía igual o superior al 33%.

b) La existencia de dificultades de movilidad para utilizar transportes colectivos según se establece en el apartado 4.b del artículo 5 del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía.

c) En su caso, la necesidad del concurso de tercera persona, según se determina en el apartado 4 del artículo 5 del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía.

Artículo 3.— Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, la cantidad de cien mil (100.000) euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 4.— Dotación de la ayuda.

1.— En el supuesto de que el transporte utilizado sea vehículo particular, la cuantía de la ayuda será el resultado de multiplicar 0,24 euros por el número de kilómetros realizados.

2.– Erabilitako garraiobidea taxia edo beste edozein garraiobide publiko bada, zenbatekoa garraiobidea erabiltzeagatik ordaindutakoaren hainbatekoarena izango da.

3.– Bidaia egiteko beste pertsona baten laguntza beharrezko bada, orobat, bidaiaren kostua ordainduko da.

5. artikulua.– Epea eta ordaintzeko era.

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak onetsita ateratzen den aurrekontu osoa finantzatu ahal izango du; eskari bakoitzeko gehenez eman daitekeen laguntza 12.000 eurokoa izango da, harik eta horretarako propio gaitutako kreditua agortu arte. Kreditu hori, eskatutako eta onartutako diru-laguntzak ordaintzeko adina diru ez badago, onuradunen artean proportzionalki hainbanatuko da.

2.– Ordainketa zatika egingo da: laguntza onestearrekin batera % 70a ordainduko da, berariaz uko egiten ez bazaio; gainerako % 30a, ordea, izandako gastuak justifikatu ondoren (horretarako, jatorrizko agiriak aurkeztu behar dira hamabost eguneko epean, ikasturtea bukatzen den egunetik zenbatzen hasita).

6. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekin bateagarritasuna.

Laguntza hauen izaera eta aplikazioa dela eta, bateagarri izango dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beka eta laguntzekin, eta bereziki, helburu berberarako jaso litezkeen beste batzuekin, diru-sarreraren zenbatekoak bidaiaren kostu osoa gainditzen ez badu betiere. Hala bada, laguntza murriztu egingo da, gehieneko mugaraino eramanez.

7. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabide-orria behar bezala beteta (I. eranskina).

2.– Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

3.– Errolda-egiaztagiria.

4.– Dagokion Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako ebazpenaren fotokopia, balioezintasun-maila aitortzen duena eta Agindu honen 2. artikuluan 4. atalean adierazitakoak egiaztatzen dituen.

5.– 2006-2007 ikasturteko matrikula-ordeztagiriaren fotokopia.

6.– Zinpeko adierazpena, ondokoa aitortzen duena: eskatzailea ez dago penalki edo administratiboki zigortuta eta, ondorioz, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera du, ez baitzaio inolako legezko debekurik ezarri, horretarako ahalmena kentzen dionik. Kontuan hartu dira, baita ere, sexu-bereizkeriagatik ezar litezkeen debekuak, Emakumezkoen eta Gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik Seigarrenean aurreikusitakoarekin bat etorritik.

8. artikulua.– Eskariak aurkeztea.

2.– En el supuesto de que el transporte utilizado sea taxi o cualquier otro medio público, la cuantía será igual al coste efectivo de dicho transporte.

3.– Cuando sea preciso el concurso de otra persona para realizar el desplazamiento, se sufragará asimismo su coste de desplazamiento.

Artículo 5.– Cuantía y forma de pago.

1.– El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales podrá financiar hasta el 100% del presupuesto que resulte aprobado, con un tope máximo por solicitud de 12.000 euros y hasta el agotamiento del crédito habilitado al efecto. Si dicho crédito no alcanzase para atender la suma de las subvenciones solicitadas y aprobadas, se procederá al prorrateo del mismo entre las diferentes personas beneficiarias.

2.– El pago será fraccionado, abonándose el 70% en el momento de la concesión, si no hubiere renuncia expresa y el 30% restante previa justificación de los gastos efectuados, mediante documentos originales que deberán presentarse en el plazo de quince días contados a partir de la finalización del curso académico.

Artículo 6.– Compatibilidad con otras ayudas.

La concesión de estas ayudas, por su propia naturaleza y aplicación, podrá compatibilizarse con las becas y ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y en particular, con otras que pudieran percibirse para el mismo objeto, siempre que el montante total de ingresos no supere el 100% del coste del desplazamiento, reduciéndose la ayuda si esto ocurriese, hasta el límite máximo correspondiente.

Artículo 7.– Documentación a presentar.

1.– Impreso de solicitud debidamente cumplimentado (anexo I).

2.– Fotocopia del documento nacional de identidad.

3.– Certificado de empadronamiento.

4.– Fotocopia de la resolución dictada por la Unidad de Valoración y Orientación de la correspondiente Diputación Foral, mediante la que se reconoce el grado de minusvalía y se acreditan los extremos señalados en el apartado 4 del artículo 2 de esta Orden.

5.– Fotocopia del resguardo de matrícula del curso 2006-2007.

6.– Declaración jurada de no estar sancionado o sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso o incurso en prohibición legal alguna que lo o la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 8.– Presentación de solicitudes.

1.– Eskatzaile bakoitzak ikasten ari den unibertsitateko beka-unitatean aurkeztu beharko du bere diru-laguntza eskaria, I. eranskinaren ereduaren arabera. Horretarako, hilabeteko epea izango du, Agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Unibertsitateetako beka-unitateek 45 egun natural izango dituzte, Agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, ikasle-zerrenda aurkezteko, II. eranskineko ereduari jarraituz. Zerrenda Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera edo bere Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dute.

9. artikulua.– Laguntzei buruzko ebazpena.

1.– Gizarte Ongizateko zuzendariak hilabeteen ebatziko du deialdia, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik zenbatzen hasita.

2.– Ebazpena esleipendunei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Epe barruan interesatuari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, eskabidea ez onetsizat hartuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Unibertsitate Zuzendaritzarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egingo ditu, bai eta laguntzak eskuratzeko behar diren jarduera guztiak ere.

5.– Horretarako, Gizarte Ekintzarako Kabinete bat sortuko da. Kabinete horretan bi pertsona egongo dira, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren ordezkari bana, hain zuzen. Kabinete horrek, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren bitartez, interesatuei eta unibertsitateetan ezinduak artatzeko dauden unitateei behar beste informazio eskatu ahal izango die, aurkeztutako eskabideen egiazkotasuna eta zehaztasuna ziurtatzeko.

10. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Bideratzea laguntza dagokion helbururako.

2.– Egiaztatzea laguntza esleitzeko eta laguntza horretaz baliatzeko ezarritako zeuden baldintzak betetzen dituela.

3.– Azaltzea nolako beharra dagoen hautatutako gairiobidea erabiltzeko.

4.– Laguntza ematea bideratu zuten baldintzak bete direla egiaztatzeko beharrezko frogaketa jarduereta-

1.– Cada solicitante deberá presentar su solicitud de subvención en la Unidad de becas de la universidad donde curse sus estudios, según modelo del anexo I, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la publicación de esta Orden.

2.– Las respectivas unidades de becas de cada universidad presentarán en el plazo de 45 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Orden, la propuesta de relación de alumnas y alumnos según modelo del anexo II, ante el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales o ante las Delegaciones Territoriales del mismo.

Artículo 9.– Resolución de las ayudas.

1.– La Directora de Bienestar Social resolverá la convocatoria en el plazo de un mes a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

2.– La resolución será notificada a las personas adjudicatarias y publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– De conformidad con lo establecido en el artículo 43.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada a la persona interesada resolución alguna, se entenderá desestimada la solicitud.

4.– Corresponde a la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, con la colaboración de la Dirección de Universidades del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria y de cuantas actuaciones sean precisas para su consecución.

5.– Se constituirá con este fin un Gabinete de Acción Social que estará formado por una persona que represente al Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales y otra que represente al Consejero del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Este Gabinete, a través de la Dirección de Bienestar Social, podrá recabar de las personas interesadas y de las unidades para la atención de las personas con discapacidad de las respectivas universidades, cuanta información considere necesaria para la comprobación de la veracidad y exactitud de las solicitudes presentadas.

Artículo 10.– Obligaciones de las personas beneficiarias.

1.– Destinar la ayuda a la finalidad para la que se concede.

2.– Acreditar el cumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos para la concesión y disfrute de la ayuda.

3.– Exponer la necesidad de utilizar la modalidad de transporte elegida.

4.– Someterse a las actuaciones de comprobación precisas, para verificar en su caso el cumplimiento de las

ra makurtzea, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, diru-laguntzen nondik norakoak fiskalizatzean eskatutako informazio guztia ematea.

5.- Jakinaraztea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari helburu horretarako zein diru-laguntza edo laguntza jaso diren, zeinahi delarik laguntzak eman dituzten administrazioak edo erakundeak, publiko nahiz pribatu izan.

11. artikulua.– Gezurrezko datuak ematea edo datuak ezkutatzea.

Kasu bakoitzean diren gorabeherak kontuan hartuta, gerta daiteke sumatzea diru-laguntza emateko beharrezko baldintzak ematean datu faltsuak ematea edo laguntza ukatzea ekarriko luketen gorabeherak isiltzea. Kasu hauetakoren bat gertatuz gero, ukatu egingo da diru-laguntza, edo laguntza eman zeneko erabakia aldatu, edo dirua itzul dadila erabaki ahal izango da.

12. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Laguntzak osorik edo zati batean itzuliko dira, beren zenbatekoa ordainduta egon nahiz ez, honelakorik gertatuz gero:

a) Laguntza jasotzeko, datuak ezkutatu edo gezurrezko datuak eman izan badira.

b) Bateriaezintasunik bada, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuegandik datozen mota horretako beste onura batzuekin.

c) Laguntzak erabiltzen ez badira izendatuta zeukaten helbururako.

d) Ezarritako baldintzaren bat betetzen ez duten edo baldintzak behar bezala egiaztaturik ez dauzkaten pertsonen ematen bazaie.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 84. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezin izango da diru-laguntza emateko behin betiko ebazpena aldatu, interesatuak espedientea ikusi aurretik eta hari entzun gabe. a) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendariak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio interesatuari, eta 15 eguneko epea emango dio egokituz jotako arrazoibideak aurkez ditzan. Halaber Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari proposatuko diote diru-laguntza aldatzea eta, hala dagokionean, jasotako kopuruak itzultzea. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko Bigarren Tituluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3.– Hasitako espedientetik badator jasotako kopuruak itzuli beharra, bai eta legezko interesak ere, ebaz-

condiciones que determinaron la concesión de la ayuda y facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

5.– Comunicar a la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, las subvenciones o ayudas obtenidas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados.

Artículo 11.– Falsedad u ocultación de datos.

Por el conjunto de circunstancias que concurren en cada caso concreto, podrá apreciarse la existencia de falseamiento de los requisitos necesarios para la concesión de la ayuda, o de ocultación de las circunstancias que habrían determinado su denegación. En estos supuestos se procederá a denegar la ayuda solicitada o a modificar la resolución de su concesión o a acordar su reintegro.

Artículo 12.– Procedimiento de reintegro.

1.– Las ayudas serán reintegradas, total o parcialmente, se haya o no abonado su importe, en los siguientes casos:

a) Que en su concesión haya concurrido ocultación o falseamiento de datos.

b) Que exista incompatibilidad con otros beneficios de esta clase procedentes de otras personas físicas o jurídicas.

c) Que su importe no haya sido destinado a la finalidad para la que fue concedida la ayuda.

d) Que se haya concedido a personas que no reúnan alguno de los requisitos establecidos, o no los hayan acreditado debidamente.

2.– El acuerdo de modificación de la resolución definitiva de concesión de la ayuda no podrá dictarse sin previo trámite de vista y audiencia de la persona interesada en el expediente, conforme a lo dispuesto en el artículo 84 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La Directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales comunicará a la persona interesada el inicio del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, concediéndole un plazo de 15 días para que formule las alegaciones que estime oportunas. Asimismo, propondrá al Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales la modificación de la concesión de la ayuda y, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Título Segundo del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el Régimen General de Garantías y Reintegros de las Subvenciones con cargo a los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– En el caso de que del expediente instruido se derive la obligación de reintegrar las cantidades recibidas

pen bat emango da dirua ahalik eta erosoan eta errazen itzultzeko; horretarako, bi hilabeteko epea izango da, itzultzeko erabakia jakinarazten den egunetik zenbaitzen hasita.

4.– Borondatezko epean itzultzen ez bada, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren jakinaren gainean jarriko da gertaera hori, indarrean dauden xedapenek ezartzen dutenaren arabera premiamenduzko bidetik ekin dakion.

13. artikulua.– Errekurtsoak.

Horrenbestez, interesdunek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuari; horretarako, hilabeteko epea dute, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori). Orobat, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea ere badute Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan; horretarako, bi hilabeteko epea izango dute agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 10.1.b eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera (Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen du lege horrek).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren beste laguntza-programetarako erabilitako diru-kopurutik dirua soberan gelditzen bada, 3. artikuluan adierazitako diru-kopurua alda daiteke, eskatutako diru-laguntza kopurua kontuan hartuta. Kopuru hori aldatzea edo ez aldatzea diru-laguntzei buruzko ebazpena hartu aurretik erabakiko da. Horretarako, eta oneste-ebazpena eman aurretik, Gizarte Ongizateko zuzendariak beharrezko aldatze-ebazpena emango du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 14a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

y en su caso, los correspondientes intereses legales, se dictará una resolución que contendrá la información necesaria para que pueda realizarse el reintegro en la forma más cómoda y sencilla posible, dentro del plazo de dos meses a contar desde la notificación del acuerdo de reintegro.

4.– La falta de reintegro en período voluntario será puesta en conocimiento del Departamento de Hacienda y Administración Pública a fin de que se proceda por la vía de apremio según establezcan las disposiciones vigentes.

Artículo 13.– Recursos.

Contra la presente Orden, cabe interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco conforme a lo establecido en los artículos 10.1.b y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe global consignado en el artículo 3 podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y con carácter previo a la resolución de las mismas. A estos efectos y con carácter previo a que se dicte la resolución de concesión, la Directora de Bienestar Social dictará la oportuna resolución de modificación que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de junio de 2006.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA

2006-2007 IKASTURTERAKO ESKABIDE-EREDUA

ESKATZAILEAREN DATUAK

.....jaunak/andreak
 NANTelefonoa
 Kalea, zk
 Herria.....Probintzia
 Jaiotze-data
 Bankuko datuak:
 Entitatea:
 Kontu-zenbakia:

ESKATZAILEAREN DATU AKADEMIKOAK, 2006-2007 IKASTURTEARI BURUZKOAK

– Unibertsitatea:
 – Fakultatea:
 – Campusa:Ikasturtea:

DEIALDIAREN XEDEARI BURUZKO DATUAK

Zenbat bidaia aurreikusi den ikasturterako: Bidaia-kopurua:

Erabiliko den garraioidea:

Metroa	<input type="checkbox"/>	bidaia-kopuruabidaia bakoitzeko prezioa.....guztira
Trena	<input type="checkbox"/>	bidaia-kopuruabidaia bakoitzeko prezioa.....guztira
Autobusa	<input type="checkbox"/>	bidaia-kopuruabidaia bakoitzeko prezioa.....guztira
Taxia	<input type="checkbox"/>	bidaia-kopuruabidaia bakoitzeko prezioa.....guztira
Ibilgailua Partikularra	<input type="checkbox"/>	Bidaia kopuruaBizilekutik unibertsitatera bitarteko kilometro-kopuruaguztira

Azaldu nolako beharra dagoen hautatutako garraioidea erabiltzeko.

.....

.....

ESKATUTAKO KOPURU OSOAeuro

Aurreko guztia dela eta, urrituentzako unibertsitate-garraiorako laguntzen 2006-2007 ikasturterako deialdian parte hartzea eskatzen dut.

Data:

Eskatzailearen sinadura

Eranskin honetako datu pertsonalak aztertuak izango dira eta, horretarako, fitxategi automatizatu batean sartuko dira, eta fitxategi horrek Norberaren datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa beteko du.

ANEXO I

MODELO DE SOLICITUD PARA EL CURSO 2006-2007

DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

D/D.ª:
 DNI Teléfono
 Domicilio c/
 Localidad CP Provincia
 Fecha Nacimiento
 Datos bancarios:
 Entidad
 Número de cuenta

DATOS ACADÉMICOS DE LA PERSONA SOLICITANTE REFERIDOS AL CURSO 2006-2007

– Universidad:
 – Facultad:
 – Campus Curso:

DATOS OBJETO DE CONVOCATORIA

Número de días previstos de asistencia al curso Número de viajes
 Medio de locomoción a utilizar:

Metro	<input type="checkbox"/>	n.º de viajes	precio de cada viaje	coste total
Tren	<input type="checkbox"/>	n.º de viajes	precio de cada viaje	coste total
Autobús	<input type="checkbox"/>	n.º de viajes	precio de cada viaje	coste total
Taxi	<input type="checkbox"/>	n.º de viajes	precio de cada viaje	coste total
Vehículo particular	<input type="checkbox"/>	n.º de viajes	km del domicilio a la Universidad.....	coste total

Exponer la necesidad de utilizar la modalidad de transporte elegida:

CANTIDAD TOTAL SOLICITADA euros

Por todo ello, solicito acogerme a la Convocatoria de Ayudas de Transporte Universitario para personas con discapacidad del Curso 2006-2007

Fecha:

Firma de la persona solicitante

Los datos personales contenidos en este Anexo, se incorporarán para su tratamiento, a un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la LO 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

II. ERANSKINA

2006-2007 IKASTURTERAKO ESKABIDE-EREDUA

.....jauna/andreak
 Unibertsitate honetako errektoreak:
 Helbidea:
 Kalea,, zk.

Eskatzen du
 Beheko zerrendan agertzen diren ikasleentzako garraio-asignazio indibidualizatua:

Izen-abizenak	Fakultatea eta Unibertsitate Campusa	Helbidea	Distantzia	Garraio-bidea	Aurrez ikusitako bidaia-kopurua	Zenbatekoa guztira

.....(e)n, 2006koren(e)an
 Sinadura: Unibertsitateko errektorea

ANEXO II

MODELO DE SOLICITUD CURSO ACADÉMICO 2006-2007

D./Dña.
 Rector/a de la Universidad de:
 Con sede en:
 c/n.º

Solicita:
 Asignación individualizada de transporte para las alumnas y alumnos que se relacionan:

Apellidos y nombre	Facultad y Campus Universitario	Domicilio	Distancia	Medio de transporte	N.º viajes previsto	Importe total

En, a de de 200.....
 Fdo.: Rector/a de la Universidad